

5

Jarduera ekonomikoen etekinak

- 5.1 Zer dira jarduera ekonomikoen etekinak?
- 5.2 Nori esleitzen zaizkio jarduera ekonomikoen etekinak?
- 5.3 Nork tributatzen du “errentak esleitzen dituzten entitateetan”? Nola tributatzen da?
 - 5.3.1 Nork tributatzen du?
 - 5.3.2 Nola tributatzen da?
 - 5.3.3 Nola zergatzen dira testamentu ahalordea erabili gabe duten herentziak?
 - 5.3.4. Nola zergatzen dira sozietateen egoitza fiskalari buruzko araudia dela-eta sozietateen gaineko zergaren zergadun diren sozietate zibilelak?
- 5.4 Nola kalkulatu dira jarduera ekonomikoen zerga oinarria eta etekin garbia?
 - 5.4.1 Zeintzuk dira zerga oinarria kalkulatzeko metodoak?
 - 5.4.2 Nola kalkulatu da jarduera ekonomikoen etekin garbia?
 - 5.4.3 Noiz dira metodo horiek bateraezinak eta noiz bateragarriak?
- 5.5 Nola kalkulatu da etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoan?
 - 5.5.1 Nola kalkulatu da etekina modalitate arruntean?
 - 5.5.2 Nola kalkulatu da etekina modalitate erraztuan?
- 5.6 Zein tratamendu ematen zaie etekin irregularrei?
- 5.7 Zein ondare elementu daude jarduera ekonomikoei atxikita? Eta zeintzuk ez?
 - 5.7.1 Zer dira jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuak?
 - 5.7.2 Zein ondare elementu ez daude jarduera ekonomikoei atxikita?
 - 5.7.3 Nola atxikitzen eta desatxikitzen ditu zergadunak ondare elementuak?
 - 5.7.4. Nola kalkulatu da atxikitako ondare elementuak eskualdatzeagatik lortzen den ondare irabazi edo galera?
 - 5.7.5 Zein onura fiskal aplikatzen da atxikitako elementuak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa berrinbertitzen denean?
- 5.8 Nola kalkulatu dira zenbatetsitako etekinak?
- 5.9 Zein irizpide jarraitzen da egozpen tenporala egiteko?
- 5.10 Zein kontabilitate eta erregistro eraman behar ditu jarduera ekonomikoaren titularrak?

5.1 Zer dira jarduera ekonomikoen etekinak?

Jarduera ekonomikoen etekintzat honako hauek hartzen dira oro har: lan pertsonaletik eta kapitaletik, bietatik aldi berean edo horietako batetik bakarrik, eratoritzen direnak eta zergadunak produkzio bideak eta giza baliabideak, edo bietako bat bakarrik, bere kontura antolatzea dakartenak ondasun eta zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

Hortaz, jarduera ekonomikoen kontzeptua mugatzeko, honako hau hartu behar da kontuan:

1. **Produkzio bideak edo giza baliabideak modu autonomoan antolatu** behar direla.
2. Jarduerearen titularrak **bere kabuz eta bere izenean diharduela**.
3. Bere helburua **ondasun edo zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzea** dela.

Jarduera ekonomikoen etekin osotzat hartzen dira, bereziki, ondorengo jarduera enpresarialak direla—eta lortzen direnak:

- Erauzketa jarduerak
- Fabrikazio jarduerak
- Merkataritza
- Zerbitzuak prestatzeko jarduerak
- Artisautza
- Nekazaritza
- Basogintza
- Abeltzaintza
- Arrantza
- Eraikuntza
- Meatzaritza

Jarduera ekonomikoen etekin osotzat hartzen dira, baita ere, jarduera profesioaletatik⁴³ datozenak (ingeniariak, albaitariak, sendagileak, abokatuak, notarioak, aseguru agente eta artekariak, musika zuzendariak,...).

Eztabaida beti sortzen duen gai bat **ondasun higiezinaren salerosketa eta errentamendua** katalogatzea da. Hau da, zalantza dago jarduera ekonomiko gisa katalogatu behar den, kapital higiezin gisa hartu behar den, edo ondare irabazitatzat jo beharra dagoen.

Bada, ondasun higiezinaren errentamendua eta salerosketa jarduera ekonomikotzat hartuko da jarduera horretan gutxienez langile bat aritzen bada, lan kontratu batekin, lanaldi osoan eta jarduera horretan eskusiboki jarduten bada.

Honako hauek EZ dira kontratatutako pertsonatzat hartuko: batetik, zergadunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea, aurreko ahaidea, ondorengoa edo bigarren graduako alboko ahaidea —ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke—; eta, bestetik, zergadunarekin lotutako pertsonatzat jotzen direnak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. apartatuan ezartzen denaren arabera.

Baldintza hau ez bada betetzen, jarduera horietatik datozen etekinak kapital higiezinaren etekinak izango dira (errentamenduen kasuan) edo, bestela, ondare irabazi edo galerak (salerosketaren kasuan).

43 Jarduera profesionalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetako bigarren eta hirugarren sekzioetan jasotzen dira.

5.2 Nori esleitzen zaizkio jarduera ekonomikoen etekinak?

Jarduera ekonomikoen etekinak, jarduera horiei atxikitako **produkzio bide eta giza baliabideak beren kontura, pertsonalki eta zuzenean kudeatu ohi dituztenek** lortuak direla jotzen da. Aurkako frogarik ezean, baldintza horiek jarduera ekonomikoen titular gisa agertzen direnek betetzen dituztela ulertuko da.

5.3 Nork tributatzen du “errentak esleitzen dituzten entitateetan”? Nola tributatzen da⁴⁴?

5.3.1 Nork tributatzen du?

Sozietate zibiletan (nortasun juridikoa izan ala ez), banatu gabeko herentzietan⁴⁵, ondasun komunitateetan, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 33. artikuluan jasotzen dituen gainerako entitateetan, lortutako errentak bazkide, oinordeko, komunero eta partaideei egotziko zaizkie hurrenez hurren, kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera. Administrazioak ez badu arau edo itun horien froga sinesgarririk, etekina zati berdinetan egotziko zaio horietako bakoitzari. Egotzitako errentek jarduerearen edo errenta iturriaren izaera bera izango dute bazkide, oinordeko, komunero eta partaideentzat.

Testamentu—ahalorea erabili gabe duten herentzietan ez zaie aplikatuko errentak esleitzeko araubidea, eta 5.3.3. atalean dioenaren arabera zergapetuko dira.

Apartatu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko sozietateen egoitza fiskalari buruzko araudia dela—eta sozietateen gaineko zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideei.

LABURPENA: bazkideek, oinordekoek, komuneroek edo partaideek ordaindu behar dute zerga.

5.3.2 Nola tributatzen da?

Errentak esleitzen dituzten entitateek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga baizik.

Bereziki, errentak esleitzen dituen entitate batek jarduera ekonomiko bat garatzen duenean, jarduera horren etekinak izaera hori bera izango dute entitate horretako partaideentzat, baldin eta horiek beren kontura, pertsonalki eta zuzenean kudeatzen badituzte jarduerari atxikitako produkzio bide eta giza baliabideak.

Hala ere, egotzitako etekinak kapitaletik eratorriak direla ulertuko da baldin eta bazkide, oinordeko, komunero edo partaideek jarduerean esku hartzen ez badute eta entitatean duten partaidetza bakarra kapitala jartzera mugatzen bada. Kasu horretan, egotz daitekeen etekina gehienez ere jarritako kapitalaren %15ekoa dela ulertuko da, kontrakoa frogatzen ez bada behintzat.

Sozietateen gaineko Zergaren araudian enpresa txiki eta ertaintzat aurreikusita dagoen zerga erregimen berezia aplikatu ahal izateko, eta “errentak esleitzen dituzten entitateak” enpresa txiki eta ertaintzat hartzeko ezarrita dauden baldintzak betetzeari begira, bakar—bakarrik entitate horiek egindako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

44 Ikus 7.4 apartatua, errenten esleipenari buruzkoa.

45 Banatu gabeko herentziak: oinordekoek onartu zain daudenei esaten zaie.

5.3.3 Nola zergatzen dira testamentu ahalordea erabili gabe duten herentziak?

Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzietan dagozkien etekinak, ondare irabazi eta galerak eta errenta egozpenak herentziako ondasunen gozamen-dunari esleituko zaizkio, haien jatorriaren edo iturriaren arabera, baldin eta, kausa-tzaileak hala xedatuta edo Euskal Zuzenbide Zibilaren legeria aplikatuta, ondasun eta eskubideen gainean gozamen-*eskubi*-dea ezarri bada pertsona jakin batentzat edo gehiagorentzat.

Aurreko paragrafoan aipatutako ondare irabazi eta galerak gozamen-dunari esleituko zaizkio, bakar-bakarrik, baldin eta eskualdaketa batetik ez datozen ondasun eta eskubideengatik sortu badira.

Jarduera ekonomikoen etekinak izaera horrekin esleituko zaizkio gozamen-dunari.

Etekinak eta errenta egozpenak gozamen-*eskubi*-de bati lotuta ez dauden ondasun edo eskubideetatik datozenean, eta ondare irabazi eta galerak apartatu honetako bigarren paragrafoan aipatutakoak ez bestelakoak direnean, herentziari berari esleituko zaizkio, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak II. tituluan ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

5.3.4. Nola zergatzen dira sozietateen egoitza fiskalari buruzko araudia dela-eta sozietateen gaineko zergaren zergadun diren sozietate zibiletak?

Sozietateen egoitza fiskalari buruzko araudia dela-eta sozietateen gaineko zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideek beren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriaren barruan sartu beharko dute sozietate zibiletan lortutako errenta positiboa, bakoitzari dagokion proportzioan, eta erregelak hauek aplikatuko zaizkie:

- Errenta positibo hori beren zerga oinarrian sartuko dute, hain zuzen, sozietate zibiletan bere ekitaldi soziala bukatzen duen egunaren ostean amaitzen den zergaldian.
- Zerga oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerga oinarria zehazteari buruz foru arau honetan bertan zein zerga honi buruzko beste xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideak jarraituko dira. Horretarako, errentatzat joko da, hain zuzen, irizpide eta printzipio horiek aplikatuz ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.
- Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikagarria zaien zergadunek zerga honen kuota osotik kendu ahal izango dituzte sozietateen gaineko zergaren antzeko edo pareko zerga edo kargengatik sozietate zibiletan benetan ordaindutako zenbatekoak, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion partean.

Letra honetan aipatutako kenkariak ezin du gaintu zerga oinarrian sartutako errenta dela-eta zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa, eta atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Gipuzkoako lurralde historikoko sozietateen gaineko zergaren araudiaren menpean dagoen entitate batek ordainduz gero errenta hori dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Xedapen gehigarri honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek, zerga honen aitortzarekin batera, sozietate zibiletan buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

- Izena edo sozietate izena, eta egoitza soziala.
- Administratzaileen zerrenda.
- Balantzea, eta galera-irabazien kontua.
- Sozietateen gaineko zergaren aitortpena, zerga oinarriaren barruan sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa akreditatzen duena.
- Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboari dagokionez ordaindutako zergen justifikazioa.

Ez dira zerga oinarrian sartuko sozietate zibiletatik jasotako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, ez eta sozietate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga honen zerga oinarrian integratu badira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Errenta positibo bera behin bakarrik integratu daiteke, nola eta zer entitateetan sortzen den kontuan hartu gabe.

Jarduera ekonomikoen etekinengatik ez da ordainketa zati-taturik egin beharko, etekinak lortu dituztenak Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean tributatzen duten sozietate zibiletako bazkideak direnean.

Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako sozietate zibiletako bazkideen araubidea (lege horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen du, eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatu behar zaien sozietate zibiletako bazkide diren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek xedapen iragankor horretako 2. apartatuko c) letran ezarritakoa aplikatuko dute (35/2006 Legeak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen du, eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

5.4 Nola kalkulatu dira jardueren ekonomikoen zerga oinarria eta etekin garbia?

5.4.1 Zeintzuk dira zerga oinarria kalkulatzeko metodoak?

Zuzeneko zenbatespena bidez kalkulatu da zerga oinarria, eta honek bi modalitate ditu: Zuzeneko eta Erraztua.

5.4.2 Nola kalkulatu da jardueren ekonomikoen etekin garbia?

Jarduera ekonomikoen etekin garbia honako zuzeneko zenbatespenean azaltzen diren modalitate hauen bidez kalkulatu da

- Modalitate arrunta: aplikazio orokorra du
- Modalitate erraztua.
 - Oro har: modalitate erraztua
 - Arau bereziak:
 - Modalitate erraztua: garraioa
 - Modalitate erraztua: nekazaritza-*abeltzaintza*
 - Modalitate erraztua: arrantza
 - Modalitate erraztua: basogintza

5.4.3 Noiz dira metodo horiek bateraezinak eta noiz bateragarriak?

Zergadunek zuzeneko zenbatespenaren modalitate arrunta aukeratzen badute beren jardueretako baten etekin garbia kalkulatzeko, modalitate arrunta erabiliz kalkulatu beharko dute beren jarduera guztien etekin garbia, araubide iragankor-rragarengatik xedatutakoa eragotzi gabe.

Hala ere, zergadunak jarduera ekonomikoren bat hasten badu urtean zehar, aurreko erregelak ez du urte horretarako ondorioz izango jarduera berriari dagokionez.

5.5 Nola kalkulatu da etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoan?

ERNE: zuzeneko zenbatespenak funtsean esan nahi du etekin garbia zergadunak egin duen jarduera ekonomikoaren sarre-
rak eta gastuak kuantifikatuz kalkulatu dela. Era horretara, emaitzak zergadunak egin duen jardueraren errealitate zeha-
zari erantzuten dio. Aldiz, zenbatespen objektiboak ez du zer-
tan bat etorririk jarduera horren errealitatearekin.

Zuzeneko zenbatespenaren metodoa izaera orokorrean aplika-
tzen da, eta bi modalitate ditu:

- Arrunta
- Erraztua

Urteko etekina metodo honen bitartez kalkulatu ahal izateko, zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortze-
ko erabiltzen den 109 ereduaren 6. eranskina bete behar du.

5.5.1 Nola kalkulatu da etekina modalitate arruntean?

Etekin garbia modalitate honen bidez kalkulatzeko, Zerga-
ren foru arauak 27. artikuluan jasotzen dituen erregelak eta
Sozietateen gaineko Zergaren araudian xedatutakoa hartuko
dira kontuan. Gainera, ondorengo erregela berezi hauek ere
aplikatuko dira:

1. Lehen erregela

Honako hauek ez dira gastu kengarriak izango: batetik,
dohaintza kontzeptupean emandako ondasunengatik ordain-
dutako zenbatekoak eta haien kontabilitatezko balioa, dohain-
tza jasotzen duten entitateen (kirol federazioen eta kirol
kluben) helburuak lortzeko aplikagarri diren neurrian, kirol
sozietate anonimoengandik kirol jarduera ez-profesionalak
sustatu eta garatzeko jasotzen dituzten zenbatekoei dagokie-
nez, baldin eta entitate horien artean kontratuzko lotura bat
eratu bada kostu bidez, kirol federazio eta klub horien hel-
burua betetzeko, eta bestetik, enpresariak edo profesionalak
gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak.
Dena den, horiek guztiak zerga oinarri orokorrean murriztu
ahal izango dira⁴⁶.

Gastu kengarriak izango dira, ordea, Gizarte Segurantzako au-
tonomoen erregimen berezian integratuta ez dauden profesio-
nalek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako ase-
guru kontratuengatik ordaindutako kopuruak. Horretarako,
eta notarioen eta zenbait abokaturen kasua hartuta adibidez,
baldintza hau bete behar da: 30/1995 Legean⁴⁷ aurreikusitako

46 Ikus 10. kapituluaren barruan, "Oinarri likidagarria" izenekoan, ageri den 10.2.1.2 apartatua. Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio pla-
nei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei ekarpenak egitega-
tik zerga oinarriak duen murrizpena azaltzen da bertan.

47 Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko
30/1995 Legearen bosgarren xedapen iragankorreko 3 apartatua eta hama-
bosgarren xedapen gehigarrian jasotzen da obligazio hori.

obligazioa beteko bada, kontratu horiek Gizarte Segurantzako
erregimen bereziaren ordezkio sistema bat beharko dute izan
Gizarte Segurantzak estaltzen dituen egoerak hartzen dituen
zatian, **araubide berezi horretan kontingentzia arrunten-
gatik ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarrita dagoen
gehieneko kuotaren mugarekin.**

2. Bigarren erregela

Zergadunaren ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen
arabera eraturako izatezko bikote-lagunak, edo harekin bizi
diren adingabeko seme-alabek modu jarraituan eta ohikotasu-
nez lan egiten badute zergadunaren jarduera ekonomikoetan,
jardueraren etekinak kalkulatzeko, zergadunak (jardueraren
titular gisa) horietako bakoitzarekin hitzarturiko ordainsariak
(soldatak,...) kendu behar ditu, beti ere ondorengo baldintzak
betetzen badira:

- Bidezko lan kontratua egotea.
- Ezkontidea edo adingabeko seme-alabak Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean afiliatuta ego-
tea.
- Ezkontidearekin edo adingabeko seme-alabekin hitzarturiko ordainsariak euren kualifikazio profesiona-
lari eta egindako lanari merkatuan dagozkienak baino
handiagoak ez izatea.

Zergadunaren ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen
arabera eraturako izatezko bikote-lagunak edo adingabeko
seme-alabek lortutako ordainsariak lan etekintzat hartuko
dira zerga ondorio guztietarako.

3. Hirugarren erregela

Zergadunaren ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen
arabera eraturako izatezko bikote-lagunak, edo harekin bizi
diren adingabeko seme-alabek ondasun edo eskubideak laga-
tzen badituzte jarduera ekonomikoaren zerbitzura jartzeko,
jardueraren etekinak kalkulatzeko, zergadunak (jardueraren
titular gisa) haiekin hitzartutako kontraprestazioa kenduko
du, beti ere merkatuko balioa gainditzen ez duenean. Kontra-
prestaziorik hitzartu ez bada, merkatuko balioa kenduko da.

Kontraprestazioa edo merkatuko balioa ezkontidearen, maia-
tzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko biko-
te-lagunaren edo adingabeko seme-alaben kapital etekintzat
hartuko da zerga ondorio guztietarako.

Ondasun eta eskubideak bi ezkontideenak edo maiatzaren
7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bi
kideenak badira, erregela hau ezin da aplikatu eta, beraz, ez
da inolako gasturik kenduko.

4. Laugarren erregela

Jarduera ekonomikoarekin zer ikusia duten honako gastuak
izango dira kengarriak:

- 100eko 50, zergadunak jatetxe, ostalaritza, bidaia eta joan-
etorriei loturiko harreman publikoak direla-eta egiten duen
jarduera bakoitzeko. Kontzeptu horiek guztiak baturik, zerga-
dunak zergaldian zehar dituen diru sarrera guztien 100eko 5
izango da muga, jarduera bakoitzaren arabera zehaztua; sarre-
ra guzien zenbatekoa kalkulatzeko, kanpoan utziko da ondare
elementu atxikiak besterentzeak dakartzan kontraprestazioen
zenbatekoa.
- Opariak eta bestelako eskuerakutsiak, baldin eta hartzaile
bakoitzari dagokionaren prezioa ez bada (zergaldi bakoitzeko)
300 euro baino gehiago, eta hartzailearen nortasuna agiriren
batean jasota geratzen bada. Baldin eta aipaturiko gastuak

goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.

5. Bosgarren erregela

1. Oro har, ez dira kengarriak izango turismoko ibilgailuekin eta beren atoeikin, ziklomotorrekin eta motozikletekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, inportatzea, alokatzea, konpontzea, mantentze lanak egitea, haien balio galera eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Ondorio horietarako, turismoko ibilgailu, atoi, ziklomotor eta motozikletatzat hartuko dira martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, eranskinean hala definitzen dituenak, eranskin horretan ibilgailu misto gisa definitutakoak eta, nolahi ere, lur orotariko ibilgailuak edo «jeep» motakoak.

2. Zergadunak dudarik gabe frogatzen duenean ibilgailua esklusiboki dagokiola bere jarduera ekonomikoari, gastu horiek kengarriak izango dira, baina honako muga hauekin:

a) Bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergadunak erabili duen amortizazio portzentajea bider 25.000 euro (alokairu, lagatze edo balio-galerenak) eginik ateratzen den zenbatekoa.

Jarduera bati bakarrik atxikitako ibilgailu bat ESKUALDATZEAN edo aktibotik baja ematean, horretatik eratorritako irabazia edo galera kalkulatzeko, ibilgailuaren erosketa prezioa edo produkzio kostua aintzat hartuko da, behin aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera kendutako amortizazioak gutxituta; gainera, erregela hauek aplikatuko dira:

- GALERA bat agerian jartzen bada, hura kengarria izango da, muga hau ezarrita: 25.000 eurotik a) letra honekin lehen paragrafoan jasotakoaren arabera ibilgailua eduki den denboran kendutako kopuruak gutxituta ateratzen den zenbatekoa.
 - IRABAZI bat lortzen bada, foru arau honen 15. artikularen 9. apartatuan jasotako moneta-zuzenketa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira erosketa prezioa edo produkzio kostua, gehienez 25.000 euroraino, eta a) letra honen lehen paragrafoan xedatutakoari jarraituz kendutako amortizazioak. Horrela kalkulaturik moneta-zuzenketaren zenbatekoa ezin izango da handiago izan eskualdaketa harengatik lortutako irabazia baino.
- b) 6.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denboraren arabera kalkulatuko dira goiko zenbakietan aipaturiko mugak.

3. Erregela honen bigarren zenbakian aipatzen diren mugak honako ibilgailu hauen erabilerari dagozkionean, ez dira aplikatuko erregela honetan aipatzen diren gastuak, zeren ibilgailu horiek eskklusiboki jarduera ekonomikoaren garapenari atxikitzen zaizkiola joko baita:

1. Merkantzien garraioan erabiltako ibilgailu mistoak.
2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.
3. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabiltakoak.

4. Ordezkariek edo merkataritza agenteek beren joan-etorri profesionalean erabiltzen dituztenak, baina, halakoetan, aurreko bi zenbakiaren a) letran ezarritzen den muga aplikatuta.

5. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabiltakoak.

6. Zaintza zerbitzuetan erabiltakoak.

7. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten erakundeek kontraprestazio bidezko alokairu-jarduera horretan soil-soilik erabiltzen dituztena.

6. Seigarren erregela

Ez dira kengarriak izango aisiarako edo ur kiroletarako itsasontziak edo aireontziak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balioa galtzearekin zerikusia duten gastuak eta ontzi horien erabilerari lotutako bestelakoak.

Garraibide horiek jarduera ekonomiko bati bakarrik atxikirik badaude, aurreko paragrafoan aipatzen diren gastuak kengarriak izango dira, baldin eta horrek berekin ez badakar jardueraren etekin garbia negatiboa izatea. Hala ere, adierazitako muga ez da aplikagarria izango, zergadunak frogatzen badu badituela behar diren baliabide material eta pertsonalak aipatutako jarduera ekonomikoa –esandako garraibideok ustiatzea– denboran zehar modu jarraituan egiteko.

7. Zazpigarren erregela

Gastuak ez dira kengarriak izango horiek sortzen diren eragiketetan ez bada betetzen 2.500 eurotik gorako ordainketak eskudirutan egiteko mugei dagokienez urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan xedatutakoa. Lege horren bidez zerga eta aurrekontu arloko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzten da, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzeko.

Zati bat bakarrik ordaindu bada eskudirutan, zenbateko zerkengarria zati horri dagokiona izango da.

8. Zortzigarren erregela

Sobornoak ez dira kengarriak izango.

9. Bederatzigarren erregela

Jarduera ekonomikoek baldintzak betetzen badituzte mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat hartuak izateko (begiratu taula), baterako amortizazioa aplika dezakete.

	MIKROA	TXIKIA	ERTAINA
Ibilgetu material berria amortizatzeaskatasuna (eraikinak izan ezik)	x	x	
Ibilgetu material berriaren amortizazio azkartua (x1,5) (eraikinak izan ezik)			x
Batera amortizatzeaskukera: ibilgetu material ukiezina eta ondasun higiezinetakoinbertsioa (turismoak izan ezik)	x		
Balitzko kaudimengabeziatarako kredituen narriaduragatik izandako galerak (muga: zordunen saldoaren % 1)	x	x	x

Baldintzak betetzeari dagokionez, zergadunak egiten dituen jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

10. Hamargarren erregela

Ez dira aplikatuko Sozietateen gaineko Zergan ezarritakoaren arabera EMAITZEN ZUZENKETAK.

11. Hamaikagarren erregela

Etekin garbia zuzeneko zerbatespenean zehazteko garaian, gastu kengarritzat joko dira zergadunak jarduera ekonomikoaren garapenean izandako mantenu-gastuak, jabetxe edo ostalaritza establezimenduetan sortzen eta bitarteko elektronikoen bidez ordaintzen direnean, betiere langileen mantenu gastu arruntetarako erregelamenduz ezarrita dauden dieta eta esleipenen muga kuantitatiboaren barruan (2.2 ikusi)

5.5.2 Nola kalkulatu da etekina modalitate erraztuan?

5.5.2.1 Zeintzuk dira zergadunen betekizunak?

Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunek zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren arabera kalkulatu ahal izango dute beren jardueren etekin garbia, baldintza hau betetzen dutenean:

- Zergadunak egindako jarduera guztien **eragiketa bolumena** (etekin garbia zerbatespen objektiboaren metodoaren arabera kalkulatu dutenena sartu gabe), ez izatea **600.000,00 eurotik gorakoa**.

ERNE: muga hau ez zaie aplikatuko 1. sektoreko jarduerari, hau da, nekazaritza eta abeltzantziari, basogintzari eta baxurako arrantziari.

Modalitate erraztua aplikatzeko muga gisa ezartzen den eragiketa bolumena modalitate hau aplikatu aurreko urteari dagokiona izango da. Jarduera ekitaldiaren barruan hasten bada, 600.000,00 euroko zifra konputatzeko, ekitaldi horretan egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan. Jarduera aurreko urtean zehar hasi bada, dagokion eragiketa bolumena urtebetera eramango da. Hau da, sei hilabetetan 60.000,00 euroko eragiketa bolumena lortu bada, urteko eragiketa bolumena 120.000,00 eurokoa izango da.

5.5.2.2 Noiz aukera daiteke modalitate erraztua? Nola egiten zaio uko?

Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren aplikazioa horretarako ezartzen denean aukeratuko da ondorioak izan behar dituen urte naturalaren barruan (martxoaren 1a baino lehen). Jarduera hasita badago, aukera hori zentsuaren alta aitortzearen egingo da.

Aukera horrek modalitatea aplikagarria den hurrengo urteetarako ere izango du balioa, non eta zergadunak, ondorioak izan behar dituen urte naturaleko epearen barruan (martxoaren 1a baino lehen), espresuki ez duen adierazten aukera horretan atzera egiten duela.

Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko nahiz modalitate horretan atzera egiteko, zergadunak Zentsu Aitorpenaren 036 ereduaren bete behar du⁴⁸.

5.5.2.3 Noiz aplikatu zaie modalitate erraztua esleipen erregimenean dauden entitateei?

a) Zein baldintza bete behar dira?

Esleipen erregimenean dauden entitateek jarduera ekonomikoak garatzen dituztenean, haien etekin garbia zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren arabera kalkulatu ahal izango da honako baldintzak betetzen direnean:

- Bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiak Errenta Zergatik tributatu behar duten pertsona fisikoak izatea.
 - Entitateak egindako jarduera guztien eragiketa bolumena, gehienez ere 600.000,00 eurokoa izatea. Muga hau ez da aplikatuko nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sektoreetan.
 - Jarduera guztien etekin garbia kalkulatzeko modalitate erraztua aukeratzeko.
- b) Zer egin behar da modalitate erraztua aukeratzeko edo modalitate horretan atzera egiteko?

Modalitate erraztua aplikatzea, modalitate horretan atzera egitea, eta orobat, etekin garbia zuzeneko zerbatespen erraztuaren arabera kalkulatzeko prozedura, bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztiak aukeratu beharko dute.

Etekin garbia zuzeneko zerbatespen erraztuaren arabera kalkulatzeko modalitatea, bat eta bera izango da bazkide, oinordeko, komunero edo partaide guztientzat. Bestela, zuzeneko zerbatespenaren modalitate arruntari jarraiki kalkulatu da etekina.

Modalitate erraztua aplikatzeko, bazkide, oinordeko, komunero edo partaideen zirkunstantzia indibidualak ez dira kontuan hartuko.

c) Nori esleitzen zaizkio etekinak?

Esleipen erregimenean dauden entitateen etekin garbia kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera egotziko zaie bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei. Administrazioak ez badu arau edo itun horien froga sinesgarriarik, etekina zati berdinetan egotziko zaie.

5.5.2.4 Nola kalkulatu da etekin garbia?

5.5.2.4.1 Zerbatespenaren modalitate erraztua. Arau orokorrak:

Honela kalkulatu da etekin garbia:

- Lehenik, sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatu dira⁴⁹, hornidurak, amortizazioak eta jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak kanpo utzita, baita jarduerari eskusiboki lotutako ibilgailuen errentamendu, lagapen edo balio-galerengatik kendutako gastuak ere.
- Ondoren, aurreko puntuan aipatu diren sarrera eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da (hasierako zerbatekoa). Diferentzia horren emaitzari %10 kenduko zaio (ken daitekeen portzentaje finkoa). Portzentaje hori amortizazio, hornidura eta gastu frogagaitzengatik aplikatzen da.
- Azkenik, aurreko puntuko emaitzari jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak gehitu edo kenduko zaizkio.

48 Ikus uztailaren 15eko 64/2008 Foru Dekretua, enpresariak, profesionalak eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar dituzten zentsu aitortpenak arautzen dituena.

49 Hori guztia Sozietateen gaineko Zergaren araudian eta zuzeneko zerbatespenaren modalitate arruntetarako ezarritako erregelatan xedatutakoari jarraiki egingo da (ikus kapitulu honen barruan ageri den 5.5.1 apartatua).

LABURPENA: modalitate erraztua
Hasierako zenbatekoa = Sarrerak – Gastuak
Kentzen den portzentaje finkoa: hasierako zenbatekoaren %10
Hasierako zenbatekoa - Kentzen den portzentaje finkoa (hasierako zenbatekoaren %10) + Atxikitako elementuen irabaziak - Atxikitako elementuen galerak.
Etekin garbia

Adibidea

Eman dezagun enpresaria zarela eta zure jardueratik datu hauek ditugula:

Salmentak	51.086,03 €
Erosketak	22.537,95 €
Amortizazioak	4.357,34 €
Zuzkidurak	1.202,02 €
Gastu frogagaitzak	150,25 €
Ondare irabazia atxikitako elementu bat eskualdatzeagatik	3.005,06 €

Kasu honetan, zure jardueraren etekin garbia honako hau izango da zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiltza:

Etekin garbia		
Sarrerak	Salmentak	51.086,03 €
Gastuak	Erosketak	22.537,95 €
Diferentzia	51.086,03 € - 22.537,95 €	28.548,08 €
Amortizazioak, hornidurak eta gastu frogagaitzak	28.548,08 €-ren %10	2.854,81 €
Irabazia		3.005,06 €
Etekin garbia	(28.548,08 € - 2.854,81 € + 3.005,06 €)	28.698,33 €

5.5.2.4.2 Modalitate erraztua. Garraio sektorea.

Bere kalkulua aurrekoaren berdina da. Desberdintasun bakarra da sarreraren eta gastuen arteko diferentzia behin kalkulatu, ateratzen den zenbatekotik % 45 gutxitu behar dela. Amortizazioengatik, hornidurengatik eta gastu frogagaitzengatik aplikatzen da portzentaje hori.

5.5.2.4.3 Modalitate erraztua. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea.

Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren kasuan, lehen eraldaketa barne, hauek bereziko dira:

a) Zergadunak edo errenta esleipeneko entitateak egindako nekazaritza eta abeltzaintza jarduera guztien eragiketa bolumena ez bada izan, aurreko lehen urtean, sarrerak baino 30.000 euro handiagoa, kanpoan utzita jarduerari atxikitako ondare elementuen galerak eta irabaziak, 100eko 75eko gutxipena aplikatuko zaio gastu justifikagaitzen kontzeptupean, eta ezingo da beste ezein gasturik kendu.

Letra honetako erregela berezia aplikatzen duten zergadunek eta errenten esleipeneko entitatek ez dute izango foru arau honen 113. artikuluan ezartzen diren erregistro liburuak eramateko obligaziorik, salmenten eta sarreraren erregistro liburuak izan ezik. Haien obligazioa izango da, ordea, enpresaburu eta profesionalak fakturak egin eta emateko betebeharrari buruzko araudiaren arabera egindako eta jasotako fakturak zenbakituta gordetzea, daten arabera ordenatuta eta hiruhilekotan multzokatuta.

Aurreko paragrafoko erregela berezia nekazaritzako turismo ostatuaren jarduerari ere aplikatuko zaio, jarduera hori haren titularrak egiten duen nekazaritza, abeltzaintza edo baso jardueraren jarduera osagarri deklaraturata badago.

b) Zergadunak edo errenten esleipeneko entitateak egindako nekazaritza edo abeltzaintza jarduera guztien eragiketa bolumena 30.000 euro baino handiagoa izan bada aurreko lehen urtean, foru arau honen 28. artikuluko 1. apartatuaren b) letran aipatzen den portzentajea 100eko 35ekoa izango da.

Errenten esleipeneko entitateek egindako nekazaritza eta abeltzaintza jardueren kasuan, aurreko a) eta b) letratan jasotakoa aplikatzean ez dira kontuan hartuko bazkide, oinordeko, komunero edo partaideengan banaka gertatzen diren zirkunstantziak, jarduera horiek zergadun horien banakako jardueren tributazioan izan dezaketzen eragina eragotzi gabe.

1. erregela honetan jasotakoaren ondorioetarako, jarduera ekitaldiaren barruan egiten hasi bada, aurreko a) eta b) letratan aipatu den eragiketa bolumena konputatzeko, ekitaldi horretan egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan. Jarduera hasi den ekitaldia urtebetea baino laburragoa bada, aurreko kopurua konputatzeko, egindako eragiketak urtebetea eramango dira.

5.5.2.4.4 Modalitate erraztua. Arrantza sektorea.

Arratza jardueraren kasuan, honela kalkulatu da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiltza:

- Lehenik, sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak sartu gabe.
- Gastuak nekez frogatu eta baloratu daitezkeenean, aurreko puntuan aipatu diren sarreraren % 90 hartuko da bakar-bakarrik **gastu kengarritzat**.
- Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik datozen irabazi eta galerak gehitu edo gutxituko dira. Sozietateen gaineko zergaren araudian jasotakoaren arabera egongo dira kalkulatuak.

5.5.2.4.5 Modalitate erraztua. Basogintza sektorea.

- Lehenik sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak sartu gabe.
- Gastuak nekez frogatu eta baloratu daitezkeenean, aurreko puntuan aipatu diren sarreraren %65ekoa hartuko da bakar-bakarrik **gastu kengarritzat**. Portzentaje hori %75ekoa izango da ustiari diren azalerak zergadunak espezie hostotsu autoktonoetan basoberritzen dituen jarraian adierazten diren baldintza eta epeei jarraiki.
- Ondoren, aurreko puntuetan aipatutako sarrera eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da. Diferentzia hori %60ko edo %50eko portzentajearekin biderkatuko da, baso jardueraren etekina, hurrenez hurren, bi edo

bost urtetik gorako epean sortu denean eta aldiari aldiero lortu ez denean.

- Azkenik, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik datozen irabazi eta galerak gehitu edo gutxituko dira. Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera egongo dira kalkulatuak.

Ustiatuazko azalerak basoberritzeko baldintzak eta epeak.

Mozketarako baimena ematen denetik hasi eta bi urteko epean basoberritu behar dira ustiatuazko azalerak. Basoberritzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion Departamentuak luzaturiko ziurtagiria aurkeztuta frogatuko da.

Gertatzen bada, aurreko paragrafoan xedatutakoaren haritik, basoberritzea ez dela burutzen ustiatuazko azalera moztu den urte berean, zergadunak mozketaren egiten den ekitaldiko aitortuaren adierazi beharko du basoberritzea lehen esandako baldintza eta epeetan egiteko asmoa duela.

Ustiatuazko azalaren basoberritze lanak ez burutzea.

Ustiatuazko azalerak basoberritzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen ez badira, zergadunak aitortuazko osagarri bat aurkeztu beharko du. Gastu kengarri modura %65eko portzentajearen ordez %75koa portzentajea aplikatu duen urteagatik aurkeztuko du aitortuazko hori (edo %70ekoa %58,5ekoaren ordez, aurreko ekitaldietatik baldin badator).

Ondorio horietarako, zergadunak berriro kalkulatu beharko du aurreko paragrafoan aipatu den urtean baso jarduerak eman duen etekin garbia, eta horretarako, aplikatuazko duen gastu kengarrien portzentajea %65ekoa izango da. Gainera, ateratzen den kuota eta dagozkion berandutza interesak ordaindu beharko ditu (edo %58,5ekoa dagozkion kasuan).

Aitortuazko likidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunean hasi eta horiek bete gabe gelditu diren zergaldia aitortzeko arauzko epea amaitzen den egunean bukatuko da.

LABURPENA: Zuzeneko zenbatespena	
Modalitatea	Ezaugarriak
Arrunta	Aplikazio orokorra
Erraztua	Zergadunak ondoko baldintzak bete behar dituzte: <ul style="list-style-type: none"> • Egindako jardueren eragiketa bolumena aurreko urtean 600.000,00 eurotik gorakoa ez izatea modalitate hau aplikatu nahi baldin badu. Lehen sektoreko jardueretarako izan ezik. • Zergadunak espresuki aukeratzea modalitate erraztua bere jardueraren guztien etekin garbia kalkulatzeko. • Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateen kasuan, aurreko bi baldintzak betetzea eta, gainera, bertako bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiak pertsona fisikoak izatea eta guztiek modalitate hau aukeratzea.

Jarduera ekonomiko bati ekiten dioten zergadunak haren etekin garbi positiboa %10ean murriztu ahal izango dute, etekina positiboa den lehenengo zergaldian eta hurrengo zergaldian (segidakoak), beti ere, etekin garbi positibo hori ematen duen lehenengo zergaldia jardueraren hasi zenetik lehen bost zergaldien barruan badago.

EZ da ulertuko jardueraren ekonomikoari ekiten zaiola, baldin eta:

- Zergadunak zuzenean edo zeharka lehenago garatu izan badu jardueraren hori. Zergadunak jardueraren bera garatzen duela ulertuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifetan talde berean sailkatuta baldin badago.
- Murrizpen hau ez da aplikatuazko zergaldian, baldin eta hasitako jardueraren ekonomikotik eratorritako sarreraren %50 baino gehiago pertsona edo entitate batetik badator, eta zergadunak pertsona edo entitate horrengandik lan etekinak lortu baditu jardueraren hasierako datuen aurreko urtean.

5.6 Zein tratamendu ematen zaie etekin irregularrei?

ERNE: jardueraren ekonomikoen etekin garbiak aitortuko badira, oro har, aurreko apartatuazko erregimen eta modalitate bakoitzetarako xedatutakoaren arabera kalkulatuazko dira.

Hala eta guztiz ere, ondorengo kasuetan, jardueraren etekin garbia kalkulatzeko, etekinen zenbateko osoari portzentaje jakin batzuk aplikatuazko zaizkio. Horren ondorioz, gainerakoa zerga oinarritik kanpo geldituko da, hau da, ez da zergapetuko. Adibidez, bi urtetik gorako epean sortutako etekinen %60 integratuazko dela esaten badugu, horrekin esan nahi da gainerako %40a ez dela aitortu behar. Aipatuazko portzentajeak jarraian adierazten dira:

a) Bi edo bost urtetik gorako epean sortutako etekinak.

Jarduera ekonomikoaren etekin garbia bi urtetik gorako epean sortu bada, baina aldiari aldiero lortu gabe, zerga oinarrian etekinaren %60 integratuazko da; aldiz, bost urtetik gorako epean sortu denean, %50 integratuazko da. Adibide bat egurretarako pinudiak dira: moztuak izan arte –landatzen diren urte asko igaro arte ez dira moztuazko– ez dute inolako etekinik sortzen eta, gainera, titularrak ez du aurreko urteetan inolako aurrerakinik jasotzen geroago egingo den mozketaren horregatik.

ERNE: sorrerardia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

Sorrerardia	Integrazio %
+2 urte	60
+5 urte	50

Jarduera ekonomikoen etekinak bi urtetik gorako epean sortu badira eta etekina **zatiak jasotzen bada**, honako eragiketa hau egingo da: sorrerardiko urteak, datatik datara konputatuak, zati etekinak zatikatuazko diren zergaldien kopurua:

$$X = \frac{\text{Etekinak zenbat urtetan sortu diren}}{\text{Etekinak zatikatuazko diren zergaldien kopurua}}$$

- Emaizta **bi urtetik gorakoa** bada, %60ko portzentajea aplikatuazko da.
- Emaizta **bost urtetik gorakoa** bada, %50eko portzentajea aplikatuazko da.

b) Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak.

Jarduera ekonomikoaren etekin garbia denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen bada, %50 integratuazko da.

Ondorengo lau etekin hauek bakarrik hartzen dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat, beti ere zergaldi bakar bati egotzen bazaizkio:

- Amortizagarriak ez diren ibilgetuaren elementuak erosteko dirulaguntzak.
- Jarduera ekonomikoetan ez jarraitzeagatik jasotako kalte-ordain eta laguntzak.
- Zerga honetan salbuetsita ez dauden literatur, arte edo zientzia sariak⁵⁰. Jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak edo horien ordezkioak lagatzeagatik eratorritako kontraprestazio ekonomikoak ez dira, ondorio hauetarako, saritzat hartuko.
- Iraupen mugagabea duten eskubide ekonomikoaren ordeztasun jasotako kalte-ordainak.

LABURPENA:

- Etekinaren %60 integratzen da bi baldintza hauek aldi berean betetzen direnean: bi urtetik gorako epean sortzea eta aldiari aurre ez lortzea. %40ak ez du zergarik ordaintzen
- Etekinaren %50 integratzen da bost urtetik gorako epean lortu denean. %50ak ez du zergarik ordaintzen.
- Etekinaren %50 integratzen da denboran zehar era irregular “nabarmenean” lortu denean eta zergaldi bakarrean kobratzen denean. %50ak ez du zergarik ordaintzen.
- Etekinaren epea jasotzen denean, erregela bat aplikatzen da kalkulua egiteko.

“Etekinak aldiari aurre ez direla lortu” esaten denean, jardueraren ikuspuntutik ari gara beti, ez pertsonaren ikuspuntutik. Adibidez: abokatu batek bi urtetik gorako epean lortu baditu bere etekinak, kopuru guztiengatik ordaindu beharko du zerga, mota horretako etekinak aldiari aurre jasotzen baitira normalean.

ERRENTA IRREGULARRETARAKO BATERAKO MUGA

%100etik beherako integrazio portzentajeak aplikatu ahal izateko, hurrengo etekinen kasuan urteko zenbatekoa ezin da izan 300.000 eurokoa baino handiagoa:

- Bi edo bost urtetik gorako epean lortutako etekinak
- Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak

Zenbateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da. Adierazitako muga konputatzeko, lehen-lehenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikiena aplikagarri duten kopuruak.

Etekinak zatika jaso badira eta 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapean ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoaren arabera.

DENA DEN, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratuen kasuan, non % 50eko integrazio portzentajea aplikatzen baita denboran era irregular nabarmenean lortutakoak izateagatik, % 50eko portzentajea aplikatuko da haien zenbatekoa edozein dela ere.

50 Ikus 1. kapituluaren barruan, “Sarrerak” izenekoan, ageri den 1.7 apartatua. Aitortu behar ez diren errentak azaltzen dira bertan.

5.7 Zein ondare elementu daude jarduera ekonomikoari atxikita? Eta zeintzuk ez?

5.7.1 Zer dira jarduera ekonomikoari atxikitako ondare elementuak?

Arau orokor gisa, jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementuak **zergadunak jarduera horren xedeetarako erabiltzen dituenak** dira.

Bereziki, ondoko hiru hauek hartzen dira jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementutzat:

- Jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.
- Langileen zerbitzu ekonomiko eta soziokulturalerara zuzendutako ondasunak (“enpresako jantokia” esaterako). Aldiz, aisialdi eta olgetarako ondasunak edo, oro har, jarduera ekonomikoaren titularrak erabilera pribaturako erabiltzen dituenak ez dira jarduerari atxikita egongo.
- Jarduera ekonomikoaren etekinak lortzeko beharrezkoa den beste edozein ondare elementu. Hala ere, entitate baten fondo propioetan partehartzea eta hirugarrenei kapitalak lagatzea adierazten duten aktiboak ez dira inoiz jarduera ekonomikoari atxikita egongo.

Senar-emazteen kasuan, ondare elementuak jarduerari atxikitat joko dira haien titularitatea bi ezkontideena den kontuan hartu gabe. Maiatzaren 2/2003 Legearen arabera eraturitako izatezko bikoteen kasuan ere berdin jokatuko da, hau da, ez da begiraturiko titularitatea bikoteko bi kideek duten edo ez.

5.7.2 Zein ondare elementu ez daude jarduera ekonomikoari atxikita?

Ondoko apartatuetan aipatzen diren ondare elementuak ez dira jarduera ekonomikoari atxikita egongo:

1. *Jarduera ekonomikoetarako eta premia pribatuetarako erabiltzen diren ondasunak.*

Ondare elementuak ez daude zergadunaren jarduerari atxikita aldi berean jarduera ekonomikoetarako eta premia pribatuetarako erabiltzen direnean. Erabilera pribatua noizbehinkakoa eta guztiz garrantzirik gabea bada, ondare elementutzat hartuko dira.

Ulertuko da jarduera ekonomikoa garatzeko eskuratutako ibilgetuaren ondasunak premia pribatuetarako erabiltzen direla eta erabilera hori noizbehinkakoa eta guztiz garrantzirik gabea dela, baldin eta zergadunak erabilera pertsonalerako erabiltzen baditu lanordu edo lanegunetatik kanpo jarduera etenda dagoen bitartean.

ERNE: turismo ibilgailuak, atoiak, ziklomotoreak, motozikletak eta kirol edo aisiarako aireontzi nahiz itsasontziak EZ DIRA hartzen jarduera ekonomikoari atxikitat, behar pribatuetarako ere erabiltzen direnean, erabilera hori noizbehinkakoa eta guztiz garrantzirik gabea izan arren.

2. *Jarduera ekonomikoaren kontabilitatean edo erregistro ofizialetan ageri ez diren ondasunak*

Ondare elementuak ere ez dira jarduera ekonomikoari atxikita egongo baldin eta, zergadunaren titularitzapean egon arren, jarduera ekonomiko horrengatik eraman behar duen kontabilitatean edo erregistro ofizialetan agertzen ez badira, non eta zergadunak atxikita daudela frogatzen ez duen.

3. *Jardueraren xedea betetzeko partzialki erabiltzen diren ondasunak*

Ondare elementuak jardueraren xederako partzialki baino erabiltzen ez direnean (adibidez, profesional batek etxebizitzaren zati bat bakarrik erabiltzen badu bere lana egiteko: gela bat), jardueraren benetan erabiltzen den zatia bakarrik egongo da atxikita (gela hori). Zentzu horretan, ondare elementuen zatiak jarduerari atxikita egongo dira gainontzekotik bereizita eta independenteki aprobetxatu daitezkeenean (gela hori "estudio" bezala bakarrik erabil badaiteke). Ondare elementuak zatiezinak direnean (kamioi bat adibidez), ezin dute inoiz atxikipen partzialik eduki.

5.7.3 Nola atxikitzen eta desatxikitzen ditu zergadunak ondare elementuak?

Ondare elementu bat jarduera ekonomikoari atxikita dagoen edo ez jakitea ezinbestekoa da. Izan ere, atxikitako elementua saltzen bada, salmenta horrekin sortzen den irabazi edo galera jarduera ekonomikoaren "etekina" izango da, eta Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera kalkulatu beharko da orduan.

Aldiz, ondare elementua ez badago atxikita, sortzen den ondare irabazi edo galera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ondare irabazi eta galeretarako aurreikusten dituen arauen arabera kalkulatu da⁵¹. Horrek bere ondorioak ditu hala oinarrietan nola tasetan. Era berean, eragin egiten du erosketari eguneratze koefizientea aplikatzean eta denbora igarotzeagatik ondare irabaziari egin behar zaizkion murrizpen koefizienteetan.

5.7.3.1 Zer da eta zertan datza atxikipena?

Atxikipenak esan nahi du ondare pertsonalaren elementuak zergadunaren ondare enpresarialera pasatzen direla.

Ondare elementuak atxikitzeak ez du zergadunaren ondarea aldatzen, hau da, ez da inolako ondare irabazi edo galerarik gertatzen, beti ere ondasun eta eskubideek zergadunaren ondarearen barruan jarraitzen badute.

Atxikipena egiterakoan, ondasunen balioa eskuratu ziren unean zuten berbera izango da.

Jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementua eskualdatzen bada (elementua salduz, adibidez), hortik sortzen den irabazi edo galera zergadunaren jarduera ekonomikoak eman duen gainerako etekinari gehitu edo kenduko zaio, etekin hori kalkulatzeko erabiltzen den modalitate edo erregimena edozein dela ere.

Jarduera ekonomikoari atxikitako ondasun edo eskubideak eskualdatzen badira, izan den ondare irabazi edo galera kalkulatzeko hauxe hartuko da kontuan: erosketari data atxikipenarena dela, eta erosketari balioa, berriz, kontabilitate balio garbia.

ERNE: ez da atxikipenik izango baldin eta zergadunak atxikipena egin ondorengo hiru urteak igaro baino lehen ondasunak saltzen baditu eta salmenta horretan lortutako zenbatekoa berrinbertitzen ez badu⁵².

5.7.3.2. Zer da eta zertan datza desatxikipena?

Desatxikipena atxikipenaren alderantzizko prozesua da: ondare enpresarialaren ondare elementuak titularraren ondare pertsonalera pasatzen dira.

Ondare elementuak desatxikitzeak ez du zergadunaren ondarea aldatzen, hau da, ez da inolako ondare irabazi edo galerarik

gertatzen, beti ere ondasun eta eskubideek zergadunaren ondarearen barruan jarraitzen badute.

Desatxikipena egiterakoan, ondasunen balioa honako hau izango da geroko aldaketan ondorioetarako:

- Jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera kalkulatu bada, ondasunen balioa desatxikipenaren unean duten kontabilitate balio garbia izango da.

Adibidea

2015ko urtarrilaren 1ean industri pabiloi bat erosi zuten zure jarduera ekonomiko garatzeko, ondare enpresarialaren parte izatera pasa zena. Pabiloi horren eskurapen balioa 60.101,21 eurokoa izan zen, eta horietatik 18.030,36 euro zoruaren balioari dagozkio. 2019ko urtarrilaren 1ean atxikipena kentzen badiuzu jarduera uzten duzulako, lokalaren balioa ("kontabilitate balio garbia") honako hau izango da geroko salmentari begira:

Lokalaren erosketari balioa (zorua barne)	60.101,21 €
Zuzeneko zenbatespen arruntan aplikatutako amortizazioak [(60.101,21€ - 18.030,36 €)*ren %5 x 4 urte]	8.414,16 €
Ondasunaren balioa geroko salmentari begira (kontabilitate balio garbia = 60.101,21 € - 8.414,16 €)	51.687,05 €

*Amortizazioaren oinarria kalkulatzeko, zoruaren balioa deskontatu da (18.030,36 €).

- Gainerako kasuetan, ondasunen balioa eskurapen prezioaren eta jada egin diren edo egin beharko ziren amortizazioen arteko "aldea" izango da.

Elementuak jarduerari atxikita egon diren denboran zergadunak etekinak kalkulatzeko aplikatu dion modalitateak ezinezkoa egin badu, aldi osoan zehar edo zati batean, aipatu ondasunen amortizazioa deduzitzea, ulertu beharko da epealdi horietan egiten den kenkaria gutxieneko koefizienteak aplikatuz ateratzen den amortizazioarena dela. Koefiziente horiek Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotzen diren gehieneko epeen ondorio izango dira.

Adibidea

2015ko urtarrilaren 1ean lokal berri bat erosi zuten zure merkataritza jarduera garatzeko, ondare enpresarialaren parte izatera pasa zena. Lokal horren eskurapen balioa 60.101,21 eurokoa izan zen, eta horietatik 18.030,36 euro zoruaren balioari dagozkio. Jarduerearen etekin garbia kalkulatzeko modalitate erraztua erabili duzu. 2019ko urtarrilaren 1ean atxikipena kentzen badiuzu jarduera uzten duzulako, lokalaren balioa ("kontabilitate balio garbia") honako hau izango da geroko salmentari begira:

Lokalaren erosketari balioa (zorua barne)	60.101,21 €
Gutxienez egin beharko zen amortizazioa [(60.101,21€ - 18.030,36 €)*ren %2 x 4 urte]	3.365,68 €
Ondasunaren balioa geroko salmentari begira (kontabilitate balio garbia = 60.101,21 € - 3.365,68 €)	56.735,53 €

*Amortizazioaren oinarria kalkulatzeko, zoruaren balioa deskontatu da (18.030,36 €).

ERNE: neurri kautelar gisa, benetako desatxikipenik ez dela izan ulertuko da zergadunak ondasun edo eskubideak eskual-

51 Ikus 6. kapitulua, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoa.

52 Berrinbertisioa Sozietateen gaineko Zergaren araudiak zehazten duen eran egin behar da.

datu baditu desatxikipena gertatu eta hiru urte igaro baino lehen. Horrelako kasuetan, ondare irabazi edo galera jarduera ekonomikoaren barruan konputatzen da, benetako desatxikipenik ez dela izan ulertzen denez gero.

Hala ere, zergadunak jarduera utzi badu (adibidez, “baja” eman badio), ondare elementuak jarduera utzi aurretik desatxiki direla ulertuko da. Ez da hala izango, ordea, jarduera utzi eta hurrengo hiru urteen barruan zergadunak beste edozein jarduera ekonomikorik berriz ekiten badio.

Nola kalkulatu ondare irabazi edo galera desatxiki den ondasuna eskualdatzen bada?

Eskualdatutako elementua ez badago jarduera ekonomikoari atxikita, ondare irabazi edo galera kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiak jarduera ekonomikoari atxikita ez dauden ondare elementuetatik eratorritzen diren ondare irabazi eta galeretarako aurreikusten duen erregimen orokorra aplikatuko da⁵³. Horrek bere ondorioak ditu aurrezpenaren zerga oinarrian integrazio eta konpentsazioak egiteko. Era berean, eragin egiten du eskuratze balioari eguneratze koefizientea aplikatzean, denbora igarotzeagatik ondare irabaziari egin behar zaizkion murrizpen koefizientetan, eta zerga tasak ezartzean.

Ondasuna desatxikipena egin ondoren eskualdatzen bada, ondasunaren eskuratze balioa desatxikipenaren egunean dagoen eguneratze koefizientea aplikatuz eguneratuko da⁵⁴.

Gainera, zergadunak 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu badu desatxikia izan ondoren eskualdatu den ondasuna, ondare irabazien zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak IV. tituluaren V. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Horrela kalkulatu ondare irabazitik bereizi behar da zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Zati hori ondoko hau dela ulertuko da: eskurapen egunetik 2006ko abenduaren 31ra arte (bi egunak barne) igarotako egun kopuruari zergadunaren ondarean egon den egun kopuru osoarekiko proportzioan dagoen ondare irabazia.

2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabazia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak lehen xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz murriztuko da.

Xedapen iragankor horretan ezarritakoa ez da aplikagarria izango zergadunaren jarduera ekonomikoari atxikita izan diren ondare elementuen eskualdaketetan, jarduera hori beste titularitate batekin egiten jarraitzen bada.

LABURPENA: atxikipena-desatxikipena
Ondare irabazi edo galera jarduera ekonomikoaren etekinaren BARRUAN
a) Jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak eskualdatzea (salmenta, trukea,...).
b) Ondare elementuak desatxikitzea eta hurrengo hiru urteak baino lehen eskualdatzea.
c) Ondare elementuak eskualdatzea jarduera ekonomikoa utzi denean baina hurrengo hiru urteen barruan beste edozein jarduera hasiz.
Ondare irabazi edo galera jarduera ekonomikotik KANPO
a) Jarduera ekonomikoari atxikita ez dauden elementuak eskualdatzea.
b) Ondare elementuak atxikitzea eta hurrengo hiru urteak baino lehen eskualdatzea.
c) Ondare elementuak eskualdatzea jarduera ekonomikoa utzi denean.

53 Ikus 6. kapituluaren, “Ondare irabazi eta galerak” izenekoak.

54 Ikus 6. kapituluaren barruan ageri den 6.2.2 apartatua, erosketa balioa eguneratzeko koefizienteak azaltzen dituenak.

LABURPENA:

– Zergadunaren jarduera ekonomikoari ondasunak “atxikitzeak” edo “desatxikitzeak” ez du ondarea aldatzen, beti ere ondasun horiek ondarearen barruan jarraitzen badute. Beraz, ondare irabazi edo galera izan dadin, ondasunak saldu behar dira.

– Desatxikipena egon dadin, desatxikipena gertatu eta hurrengo hiru urteak igaro eta gero sal daitezke ondasunak.

– Atxikipena egon dadin, atxikipena gertatu eta hurrengo hiru urteak igaro eta gero sal daitezke ondasunak. Hiru urteak igaro aurretik saltzen badira, salmentaren zenbatekoa berrinbertitu behar da.

– Jarduera uzten bada, ondasunak aldeztu aurretik desatxiki direla ulertuko da. Ez da horrela ulertuko, ordea, jarduera utzi ondorengo hiru urteen barruan beste edozein jarduera ekonomikorik ekiten bazaio.

5.7.4. Nola kalkulatu ondare elementuak eskualdatzetik datorren ondare irabazi edo galera?

Jarduera ekonomikoari atxikitako ondare elementuak (jardueraren ibilgetu material zein inmaterialekoak izan) eskualdatzen direnean ondare irabazi edo galerak sor daitezke. Horiek jardueraren etekin garbiaren beste osagai bat dira, etekin konputagarriekin eta gastu kengarriekin batera.

Jarduera ekonomikoari atxikitako elementuetatik datozen ondare irabazi eta galerak Sozietateen gaineko Zergaren araudiak xedatutakoaren arabera kuantifikatuko dira.

Jarduerari atxikitako ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako irabazi edo galera hiru fasetan kalkulatu da:

1. Eskualdaketaren emaitza kalkulatu.
2. Eskualdaketaren emaitzari zuzenketa monetarioa egin, emaitza positiboa denean.
3. Etekin garbian sartu behar diren ondare irabazi edo galeren zenbatekoa kalkulatu.

5.7.4.1 Lehen fasea: nola kalkulatu ondare elementuak eskualdaketaren emaitza?

Izaera orokorrean, jarduerari atxikitako ondare elementuen eskualdaketatik (salmenta, truke eta abarretik) eratorritako emaitza positibo edo negatiboa ondoko bi balio hauen arteko diferentzia kalkulatu lortzen da:

- I) Eskualdatze balioa. Eskualdaketaren benetako zenbatekoa da, eskualdaketari dagozkion gastuak kenduta (eskualdatzaileak ordaindu baditu).
- II) Ondare elementuaren balio garbia. Balio hori lau partida positibok eta partida negatibo batek osatzen dute:
 - a) PARTIDA POSITIBOAK
 - Eskuratze kostua, beste hiru hauek batuz lortzen dena:
 - Eskualdatutako elementua erosteko ordaindu den benetako zenbatekoa.
 - Elementua martxan jarri arte sortutako gastu gehigarriak.
 - Ondasuna martxan jarri baino lehen izandako gastu finantzarioak, Kontabilitate Plan Orokorraren arabera kapitalizatu edo aktibatuta direnean.
 - Produkzio kostua: eskualdatutako elementua enpresak produzitu badu, eskuratze balioa ondoko hauen batura hartuko da:

- Kontsumitu diren lehengaien eta erabili diren gainerako elementuen eskuratze kostua.
- Produkzioari egotzi behar zaizkion zuzeneko edo zeharkako kostuen zati proportzionala.

Ondare elementuaren eskurapenarekin edo produkzioarekin zer ikusia duten zeharkako zergak eskuratze prezioan edo produkzio kostuan sartuko dira Herri Ogasunetik zuzenean berreskuratuz ezin direnean.

- Atxikipen balioa: ondare elementuak eskuratuak izan eta gero atxiki bazaizkio jarduera ekonomikoari, eskuratze balioztat erosteta balioa hartuko da.
- Eskualdatutako elementuan egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua.

b) PARTIDA NEGATIBOA

Ondare elementuak amortizagarriak direnean, partida negatiboa amortizazioen zenbatekoa izango da.

LABURPENA
Eskuratze kostua edo produkzio kostua edo atxikipen balioa
+ Inbertsioak eta hobekuntzak
- Amortizazioak
Ondare elementuaren balio garbia

5.7.4.2 Bigarren fasea: nola egiten zaio eskualdaketa emaitzari zuzenketa monetarioa emaitza hori positiboa denean?

Ondare elementuaren eskualdatze balioaren eta balio garbiaren arteko aldea positiboa bada (ondare irabazia), eskuratu edo atxiki denetik eskualdatu arte sortu den depreziazio monetarioa kendu behar zaio errenta positibo horren mugaraino, edo azkeneko balantzeen eguneratzeatik (2012.12.31).

Zuzenketa monetarioa bi baldintza hauek betetzen direnean bakarrik aplikatuko da:

- Eskualdaketa emaitza positiboa izatea (ondare irabazia).
- Irabazi hori jarduerari atxikita dagoen ibilgetu material edo inmaterialeko ondare elementuak eskualdatzeagatik lortzea.

ERNE: ondare elementuaren eskualdatze balioaren eta balio garbiaren arteko aldea negatiboa bada (ondare galera), ez zaio depreziazio monetarioa kenduko.

Zuzenketa monetarioa bi erregela hauek kontuan izanik egingo da:

1. Zuzenketa monetarioaren koefizienteak aplikatuz.
2. Depreziazio monetarioa kalkulatu.

a) Lehen erregela: zein koefiziente erabiltzen dira 2019an zuzenketa monetarioa egiteko?

2019an egindako eskualdaketei honako koefiziente hauek aplikatuko zaizkie zuzenketa monetarioa egiteko:

Ondasuna eskuratu, produzitu, atxiki edo hobetu den urtea	Koefizientea
1984-01-01 baino lehen	2,524
1984	2,293
1985	2,116
1986	1,992

1987	1,898
1988	1,813
1989	1,726
1990	1,659
1991	1,604
1992	1,555
1993	1,542
1994	1,511
1995	1,443
1996	1,391
1997	1,368
1998	1,424
1999	1,372
2000	1,281
2001	1,262
2002	1,241
2003	1,223
2004	1,208
2005	1,186
2006	1,164
2007	1,124
2008	1,096
2009	1,084
2010	1,082
2011	1,069
2012	1,060
2013	1,053
2014	1,053
2015	1,048
2016	1,040
2017	1,026
2018	1,013
2019	1,000

Koefiziente horiek bi magnitude hauei aplikatuko zaizkie:

1. Eskuratze prezioari edo produkzio kostu zein atxikipen balioari, zergadunak zein urtetan erosi, produzitu edo atxiki duen ondare elementua kontuan hartuz, edo azkeneko balantzeen eguneratzeatik (2012.12.31). Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea horiek egin diren urteari dagokiona izango da.
2. Kontabilizaturiko amortizazioei, zein urtetan egin diren kontuan hartuz.

ERNE: hala ere, enpresari edo profesionalak etekina kalkulatzeko erabili duten modalitateak ezinezkoa egin badu zergaldi batzuetan amortizazioa espreski deduzitzea, zergaldi horietan egiten den kenkaria gutxieneko koefizienteak aplikatuzetik

ateratzen den amortizazioarena izango da, eta koefiziente horiek Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotzen diren gehienezko epeetatik aterako dira.

b) Bigarren erregela: nola kalkulatu da depreziazioaren zenbatekoa?

Zuzenketa monetarioaren koefizienteak aplikatu ondoren, eskualdatutako ondare elementuaren depreziazio monetarioa kalkulatu behar da. Zenbatekoa bi magnitude hauen arteko diferentzia kalkulatu lortzen da:

- Ondasunaren balio garbi eguneratua: eskuratze kostuaren balio eguneratua (produktzio kostua edo atxikipen balioa) ken dagozkion amortizazioen zenbateko eguneratuen batura izango da.
- Ondasunaren balio garbia: ondasunaren eskuratze balioa (produktzio kostua edo atxikipen balioa) ken dagozkion amortizazioen zenbateko eguneratuen batura izango da, biak eguneratu gabe.

5.7.4.3 Hirugarren fasea: zein da ondare irabazi edo galerengatik etekin garbian sartu behar den zenbatekoa?

Jarduera ekonomikoaren etekin garbian sartu behar den ondare irabazia diferentzia honen emaitza izango da: eskualdaketa emaitza ken depreziazio monetarioaren zenbatekoa.

Zuzenketa monetariotik ateratzen den ondare irabaziak zenbateko positibo bat edo zero izan behar du beti. Ondare galera egonez gero, eskualdatze balioa ken balio garbia eginez ateratzen den diferentzia negatiboa sartuko da jarduera ekonomikoaren etekin garbian, zuzenketa monetariotik ezin baita aplikatu.

Beraz, jarduera ekonomikoaren etekin garbia bi elementu hauek batuz lortzen da:

- Etekin arrunta.
- Jarduera atxikitako ondasunak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi eta galerak.

Ondorio horietarako, etekinak kalkulatzeko erabiltzen den modalitate bakoitzaren erregelak ondare irabazi eta galerak gehitu baino lehen aplikatuz ateratzen dena izango da etekin arrunta.

5.7.5 Zein onura fiskal aplikatzen da atxikitako elementuak eskualdatzeagatik lortutako zenbatekoa berrinbertitzen denean?

ERNE: aukera hau autolikidazioa aurkezten denean gauzatu behar da. Aukera hau alda daiteke, baldin eta hari buruzko administrazio-errekrimendurik ez bada egin.

Ibilgetu material edo inmaterialaren ondare elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik lortzen diren errenta positiboak zerga oinarritik kanpo gera daitezke, monetaren balio galerarekin zuzenduak izan ondoren. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

- Eskualdaketa lortutako zenbateko osoa jarduera ekonomikoari atxikitako ibilgetu material edo inmaterialaren beste elementu batzuetan berrinbertitzea. Berrinbertitzeko epea ondare elementua eman edo martxan jarri den egunaren aurreko urtean hasi eta ondorengo hiru urte bitartekoa izango da. Berrinbertsioa burututzat joko da berrinbertsioa gauzatzen den ondare elementuak eskura jartzen diren egunean.

Berrinbertitzen dena eskualdaketa lortutakoa baino txikiagoa bada, salbuetsiko den ondare irabazia inbertitutako zenbatekoari proportzionalki dagokion zatia izango da.

- Berrinbertsioa jasotzen duten ondare elementuek bost urtez egon beharko dute jarduera ekonomikoari atxikita berrinbertsioa egiten denetik aurrera, justifikatuta dauden galerak daudenean izan ezik, eta hiru urtez ondasun higiezin kasuan, non eta haien erabilgarritasun aldia, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak jasotzen duen amortizazio metodoa aplikatuta, ez den txikiagoa.

Zer gertatzen da baldintza horietako bat betetzen ez denean?

Bi egoera eman daitezke:

- Berrinbertitzeko epea ez betetzea

Berrinbertsioa ez bada ezarrita dagoen epean egiten, hauxe ordaindu beharko da: epe hori amaitzen den ekitaldiko aitortpen-likidazioaren kuota, salbuespena aplikatu izan ez balitz ordaindu beharko zen kuota osoaren zatia gehi % 15a.

Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei nahiz aldi baterako enpresa batasunei aplikagarri zaizkien erregimen berezietara bildutako entitateak direnean, lortutako errenta positiboan zerga oinarriaren zatia berrinbertsioa egiteko epea amaitu den zergaldian egotziko zaie bazkideei⁵⁵.

- Berrinbertsioa ez mantentzea:

Ondare elementu horiek aipatu epea amaitu baino lehen eskualdatzen badira, sartu ez den errentaren zatia derrigorrez sartu beharko da zerga oinarrian, salbu eta lortutako zenbatekoa lehen esandakoaren arabera berrinbertitzen denean.

Erregimen hau ez da beste ezekin zerga onurarekin bateragarria

Aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik aplikatzen den salbuespena bateraezina izango da eskualdaketa zenbatekoa inbertitua duten elementuen gainean aplika daitekeen beste edozein zerga onurarekin, baterako amortizazioa, amortizazio bizkortua eta amortizazio askatasuna kasuetan izan ezik.

5.8 Nola kalkulatu dira zenbatetsitako etekinak?

Zergadunak bere jarduera ekonomikoaren ondasun, eskubide edo zerbitzuak dohain laga edo beste batzuei ematen dizkinean edo bere erabilera edo kontsumorako erabiltzen dituztenean, jarduera horren etekin garbia kalkulatzeko aipatutako ondasun, eskubide edo zerbitzuek merkatuan duten ohiko balioari begiratuko zaio.

Era berean, kontraprestaziorik badago eta berau ondasunek, eskubideek eta zerbitzuek merkatuan duten ohiko balioa baino askoz txikiagoa bada, merkatuko balioa hartuko da kontuan.

5.9 Zein irizpide jarraitzen da egozpen tenporala egiteko?

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek jarduera horietatik eratortzen diren errentak denboran egotzeko apli-

55 Ikus Sozietateen gaineko Zergaren araudia.

katu behar dituzten irizpideak Sozietateen gaineko Zergaren araudian eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauetan jasotakoak izango dira.

a) Egozpen fiskalerako irizpide orokorra: sortzapenaren printzipioa.

Sarrerak eta gastuak sortzen diren zergaldian egotzi behar dira (aitortu behar dira), horiek ordezkatzeko duten ondasun eta zerbitzuen korrante errealean arabera, moneta edo finantza korrantea noiz sortu den kontuan hartu gabe, eta batzuen eta besteen arteko korrelazioa errespetatuz.

ERNE: "sortzapenaren printzipioak" esan nahi du ezen zergadunak 2019. urtean baino lehen ematen badu ondasun bat edo zerbitzu bat prestatzen, lortzen dituen sarrerak urte horretako zerga aitopenean sartu behar dituela, zein urtetan kobratzen dituen kontuan hartu gabe (2020. urtean kobratu litzake).

Dena den, galera eta irabazien kontuko kontabilitatean jasotako gastuak egozpen tenporala izan behar duten zergaldiaren ondorengo bati egotzi zaizkionean edo aipatu kontuan jasotako sarrerak behar baino lehenagoko zergaldi bati egotzi zaizkionean, egozpen tenporala egin den zergaldian konputatuko dira, beti ere horretatik eratoritzen den tributazioa sortzapen printzipioa aplikatu izan balitz aterako zena baino txikiagoa ez bada.

b) Egozpen fiskalerako irizpide bereziak

Sei kasu arautzen dira:

1. Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketak.
Hemen ulertzen da errentak lortzen direla kobratzen diren neurrian, non eta zergadunak sortzapenaren irizpidea aplikatzea erabakitzen ez duen.
Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketatzat honako hauek hartzen dira: salmentak eta obra exekuzioak, beren prezio osoa edo haren zati bat ordainketa jarraituetan edo ordainketa bakarrean jasotzen denean eta ondasuna eman denetik azken epera arte edo epe bakarrera arte igarotako denbora urtebetetik gorakoa denean.
Geroraturako zenbatekoak endosatu, deskontatu edo aurrez kobratzen direnean, egozteko dagoen errenta une horretan lortu dela joko da.
Apartatu honetan jasotakoa errenten sarrera eta gastuak nola kontabilizatu diren kontuan hartu gabe aplikatuko da.
2. Pentsio planetan jasotakoan antzeko kontingentziak estaltzeko barne fondoetan egiten diren zuzkidurak.
Barne hornidura eta fondoetan egiten diren diru zuzkidurek Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuan⁵⁶ nahiz borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen zerga erregimenari buruzko foru arauetan jasotakoan pareko edo antzeko kontingentziak estaltzen dituztenean, prestazioak ordaintzen diren zergaldian egotziko dira. Pentsio planetan jasotakoan antzeko kontingentziak estaltzeko egiten diren kontribuzioei ere arau bera aplikatuko zaie kenkaririk izan ez dutenean.
3. Ondare elementuen balioa berreskuratzea, balioa zuzendu denean.

⁵⁶ Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legeak onartu zuen.

Balioa zuzendu zaien ondare elementuen balioa berreskuratzen bada, berreskurapenaren zergaldian egotziko da, zuzenketa egin duen entitatean nahiz horri lotutako beste batean.

Arau bera aplikatuko da eskualdatu ondorengo sei hilabeteen barruan berriz erosi diren ibilgetuaren ondare elementuak eskualdatzetik eratorritako galerak daudenean.

4. "Kobrantza eta ordainketen" irizpidea.
Beren jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztuaren modalitatea erabiltzen duten zergadunek "kobrantza eta ordainketen" irizpidea aukeratu ahal izango dute sarrera eta gastuen egozpen tenporala egiteko, baina beti ere honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Sarrera edo gastuen kalifikazio fiskalean inolako aldaketarik ez eragitea.
 - Ondorioak sortu behar dituen ekitaldiko aitortpena aurkeztean adieraztea zergadunak "kobrantza eta ordainketen" irizpidea aukeratzeko duela.
 - Egozpen tenporalaren irizpideak aldatzeak ez ekartzea berekin gastu edo sarreraren bat konputatu gabe geratzea. Hala gertatuz gero, egozpen irizpidea aldatu aurretik dagokion erregularizazioa egingo da.
 - Egozpen irizpidea berdina izatea irizpide hori aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren sarrera eta gastu guztientzat.
- ERNE:** irizpidea zergadunaren aitortpenean adieraztea nahikoa izango da Zerga Administrazioak irizpide hori onartzen duela ulertzeko. Hiru urtez mantendu behar ko da gutxienez.
5. Egoitza atzerrira aldatzea.
Zergadunak atzerrira aldatu badu bere egoitza eta, horregatik, zergadun izateari utzi badio, aitortzeko dauzkan errenta guztiak egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu behar zuen azken zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan. Beharrezkoa izanez gero, aitortpen likidazio osagarri bat egingo da, baina zigorrik, berandutza interesik edo inolako errekar gurik gabe.
6. Heriotza.
Zergaduna hiltzen bada, aitortu gabe gelditu diren errenta guztiak aitortu behar den azken zergaldiko zerga oinarrian integratuko dira.

5.10 Zein kontabilitate eta erregistro eraman behar ditu jarduera ekonomikoaren titularrak?

1. Jarduera ekonomikoen etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera kalkulatzeko zergadunek Merkataritza Kodeari egokitutako kontabilitatea eraman behar dute, bai eta Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatuta dauden edo finkatzen diren erregistro osagarriak ere.
2. Jarduera ekonomikoak merkataritza izaerarik ez duenean (Merkataritza Kodearen arabera), edo haren etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bitartez kalkulatzeko denean, zergadunak erregistro liburu hauek eraman behar ditu:
 - Salmenta eta sarreraren erregistro liburuak.
 - Erosketa eta gastuen erregistro liburuak.

- Inbertsio ondasunen erregistro liburuak.
 - Kutzako liburuak.
3. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunek eta errentak esleitzen dituzten entitateek honako erregistro liburu hauek eraman behar dituzte:
- Sarreraren erregistro liburuak.
 - Gastuen erregistro liburuak.
 - Inbertsio ondasunen erregistro liburuak.
 - Kutzako liburuak.
 - Fondo eta osakinen erregistro liburuak.
4. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek araubide iragankorra erabiltzen badute haien etekin garbia kalkulatzeko, honako faktura eta frogagiriak gorde behar dituzte, dataren arabera zenbakituta eta hiruhilekotan taldekatuta:
- Egindako fakturak, enpresariak eta profesionalak fakturak egin eta emateko duten betebeharrak arautzen duen araudiaren arabera luzatuak eta jaso diren beste edozein motatako faktura edo frogagiriak.

ERNE: Nolanahi dela ere, behar diren frogagiri edo erregistroak egin, gorde eta eraman beharko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta ezarritako dauden obligazioak betetzen diren frogatzeko badira.

Obligazio bereziak

Kontabilitate eta erregistro obligazioei dagokienez, ondorengo hau ezarri da:

1. Errentak esleitzen dituzten entitateek jarduera ekonomikoak garatzen dituztenean, derrigorrezko liburu bakarrak eramango dituzte egindako jardueragatik, emaitzak bertako kideen artean nola banatzen diren kontuan hartu gabe.
- Aurreko erregela bera testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziei aplikatuko zaie, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, nahiz eta beraien etekinei esleitzeari buruz ezarritako dauden erregelak aplikatu.
2. Kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera eraman duten zergadunek ez dute lehen aipatu diren erregistro liburuak eraman beharrik izango.

3. Zergadunak independenteki beteko dituzten jarduera bakoitzaren erregistro liburuak, Merkataritza Kodeak exijitutako erregistro liburuak direnean izan ezik. Horretarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzen ereduaren ageri den apartatu berezia bete beharko du, eta bertan honako datuok adierazi: bolumen kopurua, erabilitako folio kopurua, zergaldian egindako idazpen kopurua eta azken idazpenaren data.
4. Zergadunek eta errentak esleitzen dituzten entitateek jarduera bat baino gehiago egiten dutenean, liburu independenteak eramango dituzte horietako bakoitzerako, eta lehen folioan liburuak zein jarduerari dagokion adieraziko dute.
5. Errenta Zergaren zergadunek eta errentak esleitzen dituzten entitateek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ezartzen diren obligazio erregistratutako kontableak betetzeko eraman behar dituzten liburu edo erregistroak baliagarriak izango dira, baita ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, exijitutako eskakizunetara egokitzeko direnean.
6. Fiskalki exijitu daitezkeen liburu, faktura edo erregistroak baliabide informatikoen bidez eramateko badira, honako fitxategi magnetiko hauek ere gorde beharko dira:
- Aplikazio informatikoen bidez sortutako datu fitxategiak, hala historikoak nola nagusiak, bete beharreko liburuak horietatik datozenean.
 - Programen fitxategiak, aurreko datu fitxategiak prozesatzeko erabiltzen direnean.
7. Oharpenak orrietan egitea baliagarria izango da baldin eta, egoki den beste edozein baliabide erabilita, orri horiek koerlatiboki enkuadernatu baldin badaitezke derrigorrezko erregistro liburuak osatzeko. Erregistro liburuaren orriak koerlatiboki zenbakituko dira, eta zergaldi bakoitzeko azken idazpenaren ondoren ageri den lehen orria bete gabe utziko da. Zuriz agertzen diren gainerako espazioak behar den erantza baliogabetuko dira.

LABURPENA: kontabilitate eta erregistro obligazioak jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko erabilitako sistemaren arabera					
Sistema		Jarduera		Kontabilitate eta erregistro obligazioak	
Zuzeneko zenbatespena	Modalitate arrunta	Enpresa jarduera	Jarduera ekonomikoak merkataritza izaera du	Merkataritza Kodearen arabera	Egutegia Inbentarioak Urteko kontuak
				Sozietateen gaineko zergaren arabera	Erosketen erregistroa. Salmenta eta sarreren erregistroa. Ordainketa eta kobrantzen erregistroa. Gastuen erregistroa.
			Jarduera ekonomikoak ez du merkataritza izaerarik	Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Erosketa eta gastuen erregistro liburua. Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Kutzako liburua	
	Modalitate erraztua	Enpresa jarduera		Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Erosketa eta gastuen erregistro liburua. Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Kutzako liburua	
		Araubide Iragankorra		Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Fakturak dataren arabera zenbakituko dira, eta hiruhilabeteka elkartuko dira.	
	Modalitate arrunta/erraztua	Lanbide jarduera		Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Erosketa eta gastuen erregistro liburua. Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Kutzako liburua Fondo eta osakinen erregistro liburua.	

